


# GREBA FEMINISTA

## Martxoak 8

### ZER DA GREBA FEMINISTA?

Martxoaren 8an emakume*, trans eta bollerok lan guztiak, soldatapeko zein doako lanak, egiteari utzi eta kaleak hartuko ditugu. Greba feministak bizitzako esparru guztiei aurre egiten die, indarkeriari, parekidetasun ezari, prekarietateari, sexualitate eredu hegemonikoei, lanen sexuaren araberako banaketari, kontsumo ereduari, familia patriarkalari, jakintzen hierarkizazioari, arrazakeriari, edertasun kanonari eta zapalkuntza guztiei.

*Bost ardatzetan oinarrituko dugu greba: pentsionistak, ikasleak, zaintza, enplegua eta kontsumoa.*

### ¿QUÉ ES LA HUELGA FEMINISTA?

El 8 de marzo, mujeres*, trans, y bolleras dejaremos de realizar todo tipo de trabajos, tanto remunerados como no remunerados y tomaremos las calles. Con la huelga feminista queremos poner la vida en el centro frente a la violencia, la desigualdad, la precariedad, los modelos de sexualidad hegemónicos, la división sexual del trabajo, el modelo de consumo, la familia patriarcal, la jerarquía de los saberes, el racismo, el canon de belleza y todas las opresiones.

*Centraremos la huelga en cinco ejes: pensionistas, estudiantes, cuidados, empleo y consumo.*

**Greba feministarekin hetero-patriarkatu-kapitalista eta arrazistari PLANTO EGINGO DIOGU!**

**¡Con la huelga feminista NOS PLANTAREMOS ante el hetero-patriarcado-capitalista y racista!**

Diptiko_M8.indd 1 30/1/19 9:42



## NOLA EGINGO DUGU GREBA?

Iaz bezala, greban parte hartzeko modu ugari egongo dira:

- Lantoki eta ikasgeletan greba eginda.
- Herri eta hirietako mobilizazioetara joanda.
- Zaintzeari utzita eta hori irudikatzeko amantala balkoian eskegita.
- Gure eskualde edo arloan greba antolatuta eta zabalduta.
- Besoko morea eta txapa ipinita grebarekin bat egiten dugula adierazteko.

## NORTZUK EGINGO DUGU GREBA?

Emakume*, bollera eta transak, hots, heteropatriarkatuak zapaltzen dituen subjektu anitzak. Zapalkuntza desberdinek gurutzatzen gaituzte eta horren aurrean saretze feminista ehunduko dugu.

## ¿CÓMO HAREMOS HUELGA?

Al igual que el año pasado, habrá diferentes maneras de participar:

- Haciendo huelga en los centros de trabajo y estudio.
- Yendo a las manifestaciones de los pueblos y ciudades.
- Dejando de cuidar y colgando un delantal en el balcón para reflejarlo.
- Organizando o difundiendo la huelga en nuestra comarca o espacio.
- Poniéndonos el brazalete morado y la chapa para simbolizar que nos unimos a la huelga.

## ¿QUIÉNES HAREMOS HUELGA?

Mujeres*, bolleras, y trans; es decir, los sujetos diversos oprimidos por el patriarcado. Nos cruzan diferentes opresiones y ante ello tejeremos redes feministas.

@M8EuskalHerria
m8_grebafeminista
Emakumeok Planto @M8EuskalHerria
https://grebafeminista.wordpress.com

## BIZITZAK ERDIGUNERA!

Prekarietatea lan mundutik haratago doa. Emakumeok*egoera ezberdinetan bizitza prekarioak ditugu; guk guztiontzako bizitza jasangarriak nahi ditugu. Bizitza batzuk besteak baino gehiago baloratzen dira eta sistemak bizitza batzuk sobran ditu eta ez zaizkio inporta. Guztiontzako bizitza jasangarriak lortzea elkarren beharra dugula onartzetik hasten da, horregatik bizitza mantentzeko erantzukizun kolektiboa exijitzen dugu.

Emakumeok* egiten ditugun enplegu askori balio sozial eta ekonomiko gutxiago ematen zaie lanen banaketa sexualean oinarrituta. Bizitzaren erreprodukzio eta zaintzarekin loturiko lan guztiak historikoki dohainik atera zaizkio sistemari, gizon askoren mesederako eta emakumeon*, bereziki migranteon kalterako. Ongizatea eta aberastasuna bermatzeko jarduera guztiak lana dira, soldatapekoak izan edo ez. Ezin dugu ahaztu egoera erregularizatua edo ez erregularizatua edukitzeak egunerokoa erabat baldintzatzen duela. Ongizatea eta aberastasuna bermatzen dituzten ataza guztiak lana dira, soldatapekoak izan ala ez.

**INDARKERIA MATXISTARIK ETA HETEROARAURIK GABEKO BIZITZA ANITZAK!**

Gizarte patriarkala indarkeria matxistan eta heteroarauan gorpuzten da. Emakumeok* indarkeria matxista salatzen dugun bakoitzean, eremu publiko zein pribatuan, sinisten ez gaituen eta zalantzan jartzen gaituen justizia, lege-sistema, botere pu-

## ¡LAS VIDAS AL CENTRO!

La precariedad va más allá del mundo laboral. Las mujeres en diferentes circunstancias vivimos vidas precarias, nosotras queremos vidas sostenibles para todas. Porque algunas vidas se valoran más que otras y a este sistema, además, hay personas que le sobran y vidas que no le importan. El lograr vidas sostenibles para todas comienza por reconocer la interdependencia y por ello reclamamos una responsabilidad colectiva en el sostenimiento de la vida.

A muchos de los trabajos realizados por mujeres* se les da un menor valor social y económico debido a la división sexual del trabajo. Históricamente los trabajos reproductivos y de cuidados desempeñados por mujeres* le han salido gratis al sistema, esto ha beneficiado además a muchos hombres y nos ha perjudicado a todas y especialmente a las migradas. Sin olvidar que el tener la situación regularizada o no condiciona completamente el día a día. Todas las tareas que garantizan el bienestar y la riqueza son un trabajo, tanto si son remuneradas como no.

**¡POR UNAS VIDAS DIVERSAS SIN VIOLENCIA MACHISTA Y HETERONORMA!**

La sociedad patriarcal se construye bajo el mandato de la heteronorma. Además, cada vez que las mujeres* denunciamos la violencia machista, tanto en el ámbito público como en el privado nos tenemos que enfrentar, entre otros, a un sistema de justicia, leyes y poderes públicos que

blikoekin borrokatu behar gara, besteak beste. Horren aurrean autodefentsa feminista aldarrikatzen dugu.

Euskal Herrian 2018an , 2 ume eta 9 emakume* erail dituzte. Azkenak izan daitezela exijitzen dugu.

## ARRAZAKERIARIK ETA KOLONIALISMORIK GABEKO BIZITZAK!

Arrazismoak kapitalismoarekin eta patriarkatuarekin batera arrazializatutako pertsonak gutxietsi, deshumanizatu eta eskubideez desjabetzen ditu. Inor ez da ilegala. Eremu guztietan kolonialismoaren ondorioei aurre egiteko lege eta politika ez diskriminatzaileak exijitzen ditugu.

Osasun arreta eta hezkuntza sistemarako sarbidea erraztu, etxebizitza eskubidea babestu eta prestazio sozialak bermatu behar dira. Eskubide guztiak denontzat!

no nos cree y nos cuestiona.

En Euskal Herria en 2018 han asesinado a 2 menores y 9 mujeres*. Exigimos que sean las últimas.

## ¡VIDAS SIN RACISMO Y COLONIALISMO!

El racismo junto con el capitalismo y el patriarcado menosprecia y deshumaniza a las personas a la vez que las despoja de sus derechos.

Nadie es ilegal. Exigimos leyes no discriminatorias y políticas para hacer frente a las consecuencias del colonialismo en todos los ámbitos.

Debe facilitarse el acceso a la atención sanitaria y al sistema educativo, proteger el derecho a la vivienda y garantizar las prestaciones sociales. ¡Todos los derechos para todas!

Bizitzak erdigunean!
Las vidas en el centro!
La vie au centre!



Diptiko_M8.indd 4 30/1/19 9:43